

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

GRALaren defentsa
egiteko eman beharreko
3pauso




1 GRAL IKASGAIA MATRIKULATU

Noiz: gainontzeko ikasgaiak espedientean gaindituta agertzen zaizkizunean, beti ere deialdi bakoitzeko epemuga baino lehen (ikus egutegia).

Salbuespena: *Ikasturte batean, GRALA soilik matrikulatu behar duten ikasleek, urriaren 15a baino lehen matrikulatu beharko dute.*

Non: GAUREn, matrikula atalean edo ezinezkoa bazaizu BHFko Idazkaritzan.

Zer ondorio: GRALA matrikulatzean, ikasturte horretan defendatzeko asmoa adierazten da baina ez da deialdi konkreturik hautatzen. Defendatzen ez bada, hurrengo urtean berriz matrikulatu beharko da.



2 DEFENTSA ESKATU

Noiz: ikasgaia matrikulatu ondoren eta dagokion epemuga baino lehen (ikus egutegia).

Non: GAUREn: GRALA/ADJUDIKAZIOAK/ >> sartu / defentsa eskatu/aukeratu deialdia eta hizkuntza/ defentsa eskatu / amaitu.


Zer ondorio: orain bai, deialdi zehatz batean aurkezteko konpromisoa hartzen da. Epaimahaia esleitu eta ikasgaiaren akta sortuko da, kalifikatu beharrekoa.



3 LANA ADDIRA IGO

Noiz: deialdi bakoitzeko epemuga baino lehen.

Non eta nola: Web orrian dagoen Addi Gidari jarraituz



Matrikula bukatuta! Orain, zuzendariak defentsa eskaera berrikusiko du GAUREn eta ebaluazio txostena igo. ADDIn lana onartuko du. Defentsak baino aste bete lehenago, epaimahaiaren osaketa eta defentsa egingo den ordua eta gelari buruzko informazioa jasoko du ikasleak eskolako e-posta helbidean.